Euskaldunak

1. Aztarren billa

Gizonak ba-dau argia, ba-dau kemena be, izan edo gertatu diran gauzai mamin-susterrak aztertu ta arein barren-muiñeraiño jatsirik, euren jabe egiteko. Berez dogu pilpilka leia bizi au. Zenbait arlotan, alan be, ezin dogu zer askoren zergaitia jaso; ezir gara aurretiaz gertaturiko zer askoren muiñeraiño eldu. Ta etsi-bearrean bizi gara.

Gaudi edo kosmos erdian, lurgaiñ gagoz. Noiztik? Ez dakigu. Lur au zapalduz, bertotik jan, edan eta jantziaz, mende luzeetan, millaka ta millaka urteetarako aria dauan erlojuaren antzera, bizi izan garela: besterik, ia ezer bez, istori aurretiko gauzaetzaz beintzat.

Baiña barne-kemenak daragisku ta jakin-min gara: lenengo iturriraiño eldu gura-ta, giza-semearen jatorria ikasi naiez gabiltz. Pausu askotxo be emonak dira ortarako, bide askoz saiaturik; gaur batez be, arpeetako margo ta pinturak ikusi ta aztertuz gabiltz, len-iturrira jo bearrean. Arpe ta artzuloak, gero ta geiago agertzen yakuz oremen. Or gurean be, azken urteotan billatutako arpe bikain bi, Orio'koa ta Zestua'koa; biak marrazki baliotsuz orniduak. Aztarren gain-gaiñeko ditugu oneik, len-gizonari buruz zerbait jakiteko.

2. Otz eta bero

Orain eundaka milla urterik ogetamar milla urtera lez, goitik beruntz jatsirik, giro-aldaketa ikaragarriak izan ziran, Europa zar onetan batez be. Aldikada luze batzuk, guztiz otzak ziran, giza-bizitza bera be arriskuan jarteraiñokoak; beste batzuk, ondoren, bero-aldi aundikoak. Otz-bero oneik lau bider gertatu ziran. Lenengo izoztearri —600-500 milla urte— Günz-aroa deritxe jakitunak; bigarrenari —400 - 300 milla urte— Mindel-aroa; irugarrenari —200-125 milla urte— Riss-aroa, ta laugarrenari —75-8 milla urte— Würm aroa.

Otzaldi ta beroaldi oneitan, Barandiaran jaunak diñoskunez, «ibar eta aitz-bitarte[illegible] sakondu ziran; eta gaur or[illegible] zenbait ibar eta sakanetan [illegible] diran ondartza ta arrikadirik[illegible]rdulenak, ujol aundien indarre[illegible]duan bildu ziran. Euskalerri[illegible]retza eta arrikadi asko aldi a[illegible] pillotuak dira, batik-bait Ga[illegible] Miranda, Tudela eta Baio[illegible]gurukoak» (**Euskalerri'ko Leen[illegible]izona**, 13 orr.).

Garai atan gizonak [illegible]bereak eta landarak, otz eta epel, giro egokiko billa ibilliko ziran, bizi-miñak eraginda. Giro aukerakoa nun, araxe joko eben. Otza indartzean, jakiña, ipar-aldekoak, beerantza; eta, bero aundiak ziztatzean, eder izango yaken ipar ozkirria. Batzuk, gaiñera, giro otzera egingo ziran; beste batzuk, eguzki galdatara.

Egia esan, aldaketa onein lorratzak aurkitzen doguz arpeetan. Bestela, nundik norakoak ete dira emen inguruan, arpeetan batez be, billatzen diran auntz, leza - artz, adarbakar, rinokeros, izotz-oreinen azurrak eta koba - zuloetako margoak?

Izozketa ta bero-aldi oneik ziralata, orduko gizonak izango zituan bere istilluak. Eta gizaldi luzeetan, izan be. Garai atakoak nunbait, artzuloetan eurrez samar aurkitzen diran arrizko aizkora, gezi-punta, artxabal eta olakoak. Antxañatiko arein eiza-tresnak ditugu, dudarik bage.

3. Arri-aroa

Gizonaren bizitzaldi luze oni, kondaira aurretiko gauzak aztertu ta atontzen diarduen jakitunak, arriaro edo **Paleolitiko** deitu dautsoe. Euskal lur zarra, ostera, epe luze artako barriak jakin nairik dabiltzanentzako, oso interesgarria dogu. Berton bai daukaguz ainbat orduko gauza, gure arreta merezi dabenak; baita iñun aurkitzen ez diran zer batzuk be. Geuri be onuragarri yaku geure aurretikoen barri jakitea. Onela A. Arrinda'k: «Koba-zuloetan gelditu ziran, Histori-aurreko euskaldunen zenbait arrasto; ta, bizi geranon anima-zuloetan, berriz, orduko zenbait pentsakera ta sinismenkeri» (**Euskalerri zaarra**, 12 orr.).

Arri-aro au guztiz luzea da: 600 milla urtetik 8 milla urteraiñokoa. Ta, jakintsuak, berau obeto ulertzeko, zati bitan banandu dabe: bee-paleolitikua ta goi-paleolitikua. Bee-paleolitikua, barriz lau zatitan: Abbeville'koa, Cheleskoa, Acheulkoa ta Moustier'koa; au da, 600 milla urtetik 75 millaraiñokoa.

Barandiaran jaunak onela: «Lenengo iru aldi oietako gizonen aztarna garbiak [illegible] oraindiño ez dagi[illegible] oietan ere Euskal[illegible] izan ziran[illegible]uretik [illegible]ente [illegible] Leen[illegible] aldi [illegible] lengiarren[illegible] izan dira Olin[illegible]ituritz'en.

Onaiño ezkero, ezta suster bakoa itaun au be: Noiztik daukaguz euskal lurrean gizonak? Arri-aro beekotik asita, diñoe jakintsuak. Entzun Barandiaran jaunari: «Leen-paleolitos aroak iraun zuan bitartean, Europa'ko lurretan bi gi-

za-enda, bata bestearen ondotik, azi eta zabaldu ziran. Lenengoari **Homo heidelbergensis** deitu diote jakintsuak. Gizon arek matrail-ezur sendoa, eta okotz mutur-gabea zituan. **Homo primigenius** edo **neandertalensis** zan bigarrena. Bekokia atzerantz zapaldua zuan eta bekaiñ-ezurrak berriz oso irtenak. Isturitz'en ere giza-enda onen matrail-ezur bat arkitu zan» (**Euskalerriko Leen-gizona**, 18 orr.).

Azken endako oneik asi ziran azurrean lan egiten; abere illen narruak ondu ta areikaz jazten ziran. Geroko bizitza be siñisten eben, ilobi batzuetatik atera geinkeanez.

Paleolitiko erdikoa ta goikoa —75 milla urtetik 8 millarakoa— iru alditan banatzen da: **Aurignac, Solutré** ta **Madeleine**. «**Aurignac** aldiko aztarnak, diño Barandiaran'ek, Santimamiñe'n, Bolinkoba'n eta Isturitz'en ba-dira. **Solutré** aldikoak berriz Santimamiñe'n, Bolinkoba'n, Isturitz'en eta Ermitia'n. Eta azkenik, **Madeleine** aldikoak galanki azaldu dira orain aipatu ditugun toki oietan, eta gaiñera Aitzbitarte'n, Urtiaga'n, Lumentxa'n, Armiña'n, Balzola'n eta Laperra'n» (Loc. cit.).

Jakintza ta erri bakotxeko gizona be bai, kezkatsu dabil len-gizonaren billa. Gorago esan dogunez, giza-enda bi ebiltzan antxiña baten Europa zear, bien aztarrenak aurkitzen bai dira or-emengo arpeetan batez be. Baiña areitatik ete dator lerroz lerro lez gaurko gizadia? Aurignac'en eta Cro-Magnon'en aurkitutako azur eta abarrek, gure jatorri zugatza osotzen dabela esan bear. Aurignak'eko gizona orain 75 milla urte ingurukoa dogu; Cro-Magnon'ekoa, berriz, au da, **Homo sapiens fossilis** 40 milla urtetik beerakoa.

Gaurko euskaldunok noiz eta nundik sortuak ete gara? Ez dakigu. Baiña ona gai onetan guztiz jakituna dogun Barandiarán'en eritxia. «Gai onetan —diño— iritzi asko erabilli izan dira; baña gauzari egiaz igartzeko lai[illegible]ndar eta agiririk izan ez dute. Or[illegible]aitik, nere ustez, euskaldunen [illegible]tl-aurrea Goien-paleolitos'kot[illegible]ten da, **Aurignac**'kotik noski [illegible]uskaldunen aztarnarik aru[illegible]koenak, ordutik datoztela den[illegible] (**Euskalerri'ko Leen-gizona**[illegible]r.).

4. Arpeak. Sua

Etzan giro samurra izango noski lenengo euskaldun areintzat, emengo eguraldia, ez otza ez beroa. Jantzi egoki ta tresna aukeratu barik, eriotzeak ondatuko zituan asko. Beste asko, osasunez gordiñago ziralako, otz nai bero, aurrera urten ziran. Urte-sail arein gogorra!

Izozte ta edurte-aldietan atan be, artzuloak zituen gordeleku ta biziteki. Orreitan, gazte ta zar, alik ondoen bizitz latzari arpegia emoteko alegiñak egingo ebezala, eztago zetan esanik. Bero-garaian, gizonak zer-janaren billa ziran bitartean emakume ta aurrak basoko frutuak batuko ebezan.

Artzuloko sarrera, pizti ta abereak bertatik uxatu ondoren, auda raz itxita cukiko eben; abe-adarrez esiz ta erromaraz ingurututa. Barruko oea, bedar, orbel, ira ta lazto pilloak izango ziran. Sarreratik laster zan sukaldea, Altamira'n agiri danez, argia ikusteko ta aizea arnas artzeko izan egien. Baita, gabaz, su aundi bat ixetuko eben atarian bertan, inguruko pizti ta patari gaizkiñak urrintzeko.

Sua, zelan asmatu ete eben? Asmatu ez, baiña bearrizanak erakutsiko eutsen gai orren ezkutua. Eguzki-izpiz baliatuko ziran lenengoz, eta eurak be gero eldu ziran sua zelan biztu jakitera. Ta au izango zan, gaur illargira eltzea lez, orduko asmakizunik aintzagarriena. Lenengotan, orbel ta orri artean sukarri zatiak alkar joaz biztu-azten eben. Eta bein ataratakoan, arduraz zaintzen eben itzali ez ekien; itzali ezkero, bada, ez zaken errez berriro biztuten.

Len-suari buruz bada gurean elezar bat. Sua lortzeko, adar legortu bi igiten ziran gurutz artzera, ta bestetara bizkor bizkor bira eragiñik, igurzika egiten zan beroaren berriz [illegible] egiten ziran adar [illegible] euskaldunen erlaiu [illegible] lenengoz [illegible]

[illegible] ezkon [illegible] ezkon [illegible] erale [illegible] [illegible] joka lenduruz [illegible] [illegible] bai eben beste [illegible] [illegible] ta suarria [illegible] egokiegiak, eta gai orreikin egiezan aizkorak, aitzurrak, gezi-puntak, karrankak, aiztoak, inalera, karrakaillu ta zulakaitzak. Euskal errian, an-or zabalduta, danotatik aurkitzen dira, arpe inguruetan batez be.

Antxiña-antxiñako garai atan baeben beste gai bat be esku artean bear zituen tresna ta tramankuluak egiteko: azurra. Itxas-arraiñe-

tatik eta jateko ilten ebezan abereetatik lortzen eben au. Arrainazurra naiz pizti-adarra, izan be, sendo iraunkorra da; mutur alderuntz zorrotza, ta barrutik uts mokola; landuteko naikoa erreza. Patari-adarra orrez gaiñera, outz-eginezkero, ots dagiana yatzu, ta ona nun, gaur be gure artzaiñak erabilli oi daben adar edo turutaren jatorria.

6. Eiztariak

Biziari eusteko jan egin bear dau gizonak. Janariak ostera arrapatzen edo eskintzen dauskuz naikoa: ugari, solo-frutuak, zugatz-galiak, aberearagia ta abar.

Eta eizatik bizi zan batez be, ...tori aurreko gizona. Naiz otzaldian naiz beroaldian, guztitariko pizti ta abereak eukazan inguruan: basurdeak, basauntzak, azeriak, otsoak, izotz-oreiñak, zaldiak. Oneik guztiok agiri yakuz, margoztuta, euskal lurreko arpe ta artzuloetako ormetan. Zestua'tik ur-ur, oraintsu aurkitutako Ekain arpe edo koban 33 zaldi-iduri, 10 bisonte, 4 auntz, orein bi, artz bi, arrain bi ta lerro utsak ugari ikusten dira. Ta oneik, ezkutuko indar edo ezpiritu bati animali orreik errezago arrapatzeko laguntasuna eskatzeko ei dira.

Ortik bait-ziran bizi, eiztari oso trebeak genduzan garai artakoak: experientzia ondo ikasi ta berezko maltzurkeriz ohetu ermuak.

Mendiz mendi ta ibaitez ibar ebiltzan [illegible] taldeetan batuta [illegible] tariak. Oraiko [illegible] egiten. Basurde [illegible] bat, nai daneau? Ekaitz bardin sanbarra, jarraitsu ibilli ino gizona. Ien ta orain.

Eiztariak eurak lan [illegible] estali ta itxurgabe oi ziran. Eta iruzur-adarrez berezko [illegible] ta zuzperara erojezan pizti[illegible] sre-arte; mantorrik, triki-maillu[illegible] rampetara, [illegible] igarri ta [illegible] unbait, arrela, [illegible] taket ibarik, arrika, gezi, [illegible] erasten eta [illegible] ebezala.

Antxiñako aireik [illegible] arrapatzeko egin oi ebe[illegible] sakon-one ta erreten [illegible] en dira euskal errian; bat[illegible] ko. Ara-ba ko Kuartangoko [illegible] tzeko maiña maltzur[illegible] olatua.

7. Zer soiñeko?

Jentzi-auziak eztau [illegible] garrantzi gitxi. Ez orixel [illegible] bertoetan bear bada ez ainbeste. Jaiña euskal lur puska onetan, gure eguraldia ezta ez otzegi ez bero-egi, baditu, alan be, negu ta uda bere aldaketak. Antxiñatean askoz geiago, esan dogunez. Or gai onen koska.

Gure len-gurasoak, otza —edo lotsa— nabaritzean, piku-ostoz estaldu eben euren billostasuna. Ondorengoak, zelan ete? Arri-zuloak, imendietan eta ibai-ertzetan, babes ta beroleku ebezan, gizonaren lengo etxeak nunbait. Eguraldi epeletan ez eukien bizitoki txarra izarpean be; baiña izozteetan? Otzaren otzez, ainbat ilgo ziran. Bear-izanak ortaratuta, pizti-ta-rruz estaliko eben soiña. Etziran, gaiñera, gu baizen guperak izango.

8. Len-izkuntza?

Bizimodu latz arek —zetako esan?— gauzarik asko erakutsixe eutsezan. Ordutikoak antza sendi ta familiak be, gizona berez ezta [illegible] bakar-zale.

Eta zelan alkarri adierazo euren gauzak? Izkuntza darabilgu ortarako, geure pentsamentu ta aldezkunak batak besteari azaldu ta adierazten emoteko. Guk umetan ikasi oi dogu geure izkuntza, guk euskaldunok geure euskera. Lenen, umetxoaren arnasa ta negarra zuzpertu ta akulatzearren, amak zapladatxo bat emoten dautso jaio danekoxe; umeak aurrerantzean, lo dagoanean lez, nasai eukiko dau bere miiña. Ta miiña onela daukala oguzi edo esango dau a bokala; edo-ta, aurrera saka egingo dautso miintxoari, ta ago-sapaiko bokal bat —i, e ta abar— sortuko dau. Ta orrelaxe agoz, agiñez, aosapaiz edo eztarriz esan oi dogu-zan beste izki eta itz guztiak be. Guzti au, urte biko ume gareanean, ederto ikasten dogu ingurukoengandik.

Baiña itzak eta esaerak zer adierazo nai dabeu? Nok ipiñi eutsen oriel esan-naia, izkuntza bakotxean ondu-dauana? Or untzea. Gizonak ziu-rren taldeetan [illegible] ziran bazterrak, zer [illegible] bakotxak as-[illegible] Beste-[illegible] [illegible] ...ardi-[illegible]

[illegible] ...ta nas-[illegible] izkeraren jabe izango zan.

Dana dala, noizbait sortua dogu gaur, ainbat urteen buruz, il-bearrez daukagun euskera. Munduko izkuntzak asmetako naiko jakituri bear zan. Batzuk zaillagoak, beste batzuk errezagoak ditugu. Arrosko samar autor dagigun: euskera asmatu ebenak etziran iñundik be motelak izan.

A. Baseta